

MIGUEL DE ITURAIN PILOTUA

XVI. mendeko pilotu lezoarrak, Jaimes de Zamora tratatugilea barne, mundu osoko trebeenetakoak izan ziren. Maisuak ziren itsas zabaleko nabigazioan, eta oso estimatuak Espainiako gerra-ontzietarako. Itsasgizon horien bizitzari buruz, ordea, ezer gutxi dakigu, Lope de Isasti doktore lezoarrak XVII. mendean jasotako berri urriez gain. Dena dela, Hondarribiko udal artxiboan aurkitutako eskuizkribu bati esker Miguel de Iturain pilotuaren (+ 1597) bizitzaz eta heriotzaz arituko natzaizue, labur bada ere.

I. BIZITZA

Ez dago jakiterik noiz jaio zen Miguel de Iturain, Lezoko parrokiako bataio-liburu zaharra galdu egin baitzen Frantziako gudarosteak herria armaz hartu zuenetako batean, 1638. urtean, hain zuzen. Haren emazte Maria de Landagorrieta, berriz, 1560. urte inguruan jaio zen. Lau seme-alaba izan zituzten: Juan Nuñez, itsasgizon izango zena, Martin, Domingo eta Maria. Bestalde, Miguel de Iturain beraren anaia bat ere, Juan Martin de Iturain, oso pilotu trebea izan zen.

1582. urtean kokatzen gaituzte Miguel de Ituraini buruzko lehenengo berriek: Azores artxipielagoko (Portugal) San Miguel irlako itsasbatailan, non galdu baitzuen bizia Juanot de Villaviciosa zaharra almirante lezoarrak. Izan ere, Felipe II.aren flotako kapitain jenerala Alvaro de Bazan izanik, pilotu lanetarako hartu zuen honek Miguel de Iturain, Miguel de Oquendo jeneralaren agindupeko ontzidian, Sebastian de Labastida kapitainaren naoan. Aldi hartan, Bazanen gerra-ontziek erabateko garaipena lor-



Maripoxaenea etxeko ate ganean, hau da, kale Nagusiko 6. zenbakian, hondar-erlojua, konpasa, ipar-izarra eta haize-arrosa daude harri ganean zizeldurik. Pilotuak lau gauza hauetaz baliatu ohi ziren, besteak beste, ontzia gidatzeko. (Fotografia: Imanol Zurutuza).

tu zuten Felipe Stroci agintari frantsesaren kontra. Horren ondorioz, Espainiako erregeak lasaitasun handiagoz eutsi ahal izango zion botereari Portugal elkartu berrian, Frantzia eta Ingalaterraren zorigaitzerako.

1589. eta 1590. urteetan, Antonio de Urquiola jeneralaren agindupeko ontzidian ihardun zuen Miguel de Iturainek, Pasaiako portutik Lisboara eta handik Tercera irlara (Azores artxipiela goa), Esteban de Iguiniz kapitainaren "Nuestra Señora del Juncal" naoan; bai eta Juan Lopez de Resu eta Martin Lopez de Iribaneren naoan ere. Helburua Portugal ingelesaren erasotik babestea zen. Ordurako, ordea, hondamen handia pairatua zen Felipe II.aren "Flota Garaitezina", 1588. urtean, ekaitzen eta Ingalaterrako ontzien kontra, Medina Sidoniako dukearen esperientzia ezagatik; gogor iraungo zuen oraindik itsas-gerrak, 1604. urteko pake hitzarmena izenpetu arte.

1591. urtean, hogeita hamar, hogeita hamabost bat urte zituela seguraski, flotako pilotu nagusi izendatu zuten Miguel de Iturain. Kargu berria hartuta, Antonio de Urquiola jeneralaren naoan itsasoratuko zen, ohi zuenez Pasaiako portutik, hori baitzen babeslekurik hoberena, Bizkaiko Golkuan, erregearen gerra-ontzientzat.

II. HERIOTZA

1597. urtean berriro saiatuko zen Felipe II.a Ingalaterraz jabetzen. Aldi hartan, A Coruñako portuan bildu zen flota. Miguel de Iturain, pilotu nagusi karguan, Diego Brochero jeneralaren agindupean jarri zen, eta Pasaiatik A Coruñara nabigatu zuen, eta handik, atzera, Pasaiara, Suso, Mutio, Ambrosio eta Bertandona kapitainekin batera, itsasorako bizkotxo hornitzera. Gero, Galizara itzultitakoan, gainerako ontziekin batera, Ingalaterrara abiatu zen, Eire inguruan barrena.

Espainiara itzultitakoan bi «zabra», hots, bi untzi arinen agintea eman zioten, Ingalaterrako kostaldera itzul zedin eta arrantzale ingelesak ekar zituzan bahiturik A Coruñara, haiek emandako berriez egoeraz jabetuko zirela uste baitzuten flotako agintariek.

Hori egindakoan, jasoko zuen azken agindua eman zion Brochero jeneralak Miguel de Ituraini: hogeita hamar marinela bere agindupean hartuta, «San Bartolomé» galeoiari laguntza emateaz arduratu beharke zuen lezoarrak. Oraingoan, ordea, itsasoak eraman zituen, bai bera, bai berarekin zihoazen guztiak ere, ekaitz handi batek harrapatu zituelarik Bizkaiko kostaldean.

Miguel de Iturainen alarguna, gaisorik eta zorpeturik, egoera larrian geratu zen, lau seme-alaba gaztetxo zituela.

LANDER ZURUTUZA

ITURRIA

Hondarribiko Udal Artxiboa: E/7/1/5/12.